

Azken muturrerainoko maitemina



SIN COMPROMISOS

DEPÓSITO A UN MES 6% T.A.E.

KLASIKO modernotzat jo genezakeen beste autore batekin aberastu du azken aldi honetan Igel argitaletxeak bere Literatura Saila. Stefan Zweig idazle austriarraren Emakume ezezagun baten gutuna da, hain zuzen, Igelak berriki euskarara ekarri digun obra. Kontakizun oso laburra izanda ere, intentsitate handikoa dugu liburuak, "samurra eta lazgarria aldi berean", Edorta Matauko euskaratzailearen hitzetan. Emakume batek beti maite izan duen gizonari gutun batean azaltzen dio haur bat zenetik nolako maitasuna izan dion, nahiz eta hura ez den sekula horretaz ohartu eta jabetu.

Zinezaleei, beharbada, ezaguna egingo zaie istorioa eta izenburua. Izan ere, Max Ophüls zuzendariak film

bat egin zuen liburu hau oinarri hartuta 1948an, zuri-beltzeko obra klasiko bihurtu dena; bestalde, iaz bertan, gure pantailetan ikusi ahal izan genuen liburuaren bigarren egokitzapena, Xu Jinglei txinatarrak egina hain zuzen. Istorio hau zinerako hautatu izana, bai orain mende erdi eta bai gaur egun, hala mendebaldean nola ekialdean, adierazgarria da egia esatera, gizakion sentimenduak, bizi gaituzten grinak eta obsesioak, izan ohi ditugun jokabideak betikoak eta non-nahikoak diren seinale, seguruenik. Horrela, bada, idatzi zituen beste lan batzuetan bezala, giza nortasunean eta psikologian aztarrika ageri zaigu Zweig nobela labur honetan ere, maitasuna hartuta hemen aztergai, haren esanetan ardoa bezala baita, gozagarri batzuentzat eta galgarri beste batzuentzat.

Ez dugu hau euskarara ekarritako Stefan Zweig-en lehenbiziko nobela. Orain zazpi urte, 1999an, Xake nobela argitaratu zuen Alberdania argitaletxeak, Xabier Mendiguren Bereziartuk itzuli. Oraingo hau, lehenago esan dugunez, Edorta Mataukok itzuli du, alemanetik zuzenean. Aurretik ere itzuliak ditu Mataukok beste bi literatura-lan; hain zuzen ere, Harry Crews-en Autoa (1993) eta Joseph Roth-en Leviatana (1998), biak ere Susa argitaletxearekin argitara emanak. Zweig-en Emakume ezezagun baten gutuna itzultzen arabarrak taxuzko lana egin duela esan beharra dago, eta liburuak, bere laburrean, bazuen zailtasunik: hizkera preziosista xamarra, tratamenduekiko gorabeherak (alemanezko Du eta Sie nola eman)... Azkenean, ordea, Igelaren Literatura Sailerako beste ale eder bat gehiago izan da emaitza.

EMAKUME EZEZAGUN BATEN GUTUNA

Jatorrizko izenburua : Brief einer Unbekannten. **Egilea** : Stefan Zweig. **Itzultzailea** : Edorta Matauko. **Argitaratze urtea** : 2005. **Argitaletxea** : Igel

NUEVO SERVICIO



COMUNIDAD BLOG



PUBLIQUE GRATIS SU BLOG CON DIARIO DE NOTICIAS

¿Desea usted ser periodista?

¡NOVEDAD! Localiza fácilmente el destino que buscas en nuestro **Callejero**. Planos urbanos, lugares de interés, farmacias...

¿Quiere presentar sus opiniones y vivencias al mundo? Entre en la mayor **comunidad de usuarios de Navarra** y **publique su espacio**

HOY EN LA AGENDA...



CONCIERTO DE PEREZA Y BARUA

Hoy a las 22.00 horas, en la sala Artsaia (15 euros, anticipada)

FORO DE DEBATE - TEMAS DE ACTUALIDAD

¿Qué valoración hace de los dos primeros años de Gobierno de José Luis Rodríguez Zapatero?

BOLSO ADIDAS CHAMPIONS

Hazte con el

HÉROES Y ARMAS II GM

Una sensacional

CONCIERTOS DE TU VIDA

Rememora

COCINAS DEL MUNDO

Las recetas de

BUSCADOR | HEMEROTECA

En Diario de Noticias:

En internet / Google:

Anuncios Goooooogle Anunciarse en este sitio

[Encuestas por internet](#)

Opina sobre temas de actualidad y participa en sorteos de 1300€

www.encuestas-internet.com

[Navarra inmobiliaria](#)

portal inmobiliario de navarra amplia oferta inmobiliaria

www.navarrainmobiliaria.net

[Velocímetro del Internet](#)

Sepa aquí cuál es la velocidad disponible en su acceso! Ya.

www.abeltronica.com

OTROS ARTÍCULOS DE MIRARTE :

☰ "Arrazoia gain-baloratua dago, eta gizakiarenbeste gaitasun asko atrofiatuta"



bolso oficial
de la Liga de
Campeones



obra histórica
recopilada en 10
fantásticos DVD



los mejores
años del rock
and roll



los chefs más
prestigiosos
de cada país

PUBLICIDAD | PROMOCIONES | DISTRIBUCIÓN | SUSCRIPTORES | EMPRESA EDITORA | TRABAJOS DE IMPRESIÓN | CONTACTO

XML
Sindicación

internet@noticiasdenavarra.com | Web auditada por la OJD | [Haznos tu página de inicio](#) | [Suscripción a los titulares](#) |
Visite también www.noticiasdealava.com | www.noticiasdegipuzkoa.com

© **DIARIO DE NOTICIAS**-Edición Digital
Altutzate 8, Polígono Industrial Areta · HUARTE-PAMPLONA · Tel 948 33 25 33 Fax 948 33 25 18